

**MIKEL ZARATEREN HERIOTZAREN
25.URTEURRENA**

Lezama, 2004-IV-01

AGERIKO BILKURA MIKEL ZARATEREN OMENEZ

Lezamako Kultura Aretoa

2004ko apirilaren 1a

*Pello Telleria,
idazkariordea*

Mikel Zarateren heriotzaren 25. urteurrena dela eta, martxoaren 26an egitekoa zen ageriko bilkura apirilaren 1era atzeratu beharra izan zen, Andolin Eguzkitza Bilbao euskaltzainaren hileta-elizkizuna egun eta ordu berean izan baitzen. Aurreikusi bezala, Lezamako Udaletxeko Kultura Aretoan egin zen ageriko bilkura, arratsaldeko sei eta erdietan. Hau izan zen egitaraua:

1. Luis Ramon Alvarez alkatearen *ongietorria*.
2. Lourdes Prudencio, *Zorritzetan* Lezamako Euskera Alkarteko buruaren *hitzak*.
3. Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren *agurra*.
4. Mintzaldiak:
 - ✓ Karmelo Etxenagusia, ohorezko euskaltzaina: «Mikel Zarate, eleiz idazle».
 - ✓ Jose Luis Lizundia, euskaltzain osoa: «Mikel Zarate, bizkaieraren eta euskara batuaren arteko zubigintzaren estrategia».
 - ✓ Andres Urrutia, euskaltzain osoa: «Mikel Zarateren irakasbidea.»
5. *Ekidazu* herriko abesbatzak bi abesti kantatu zituen.
6. Amaieran, Alkateak luntx batera gonbidatu zituen bertaratu ziren guztiak.

Aretoa bete jende izan zen ageriko bilkuran. Hauek izan ziren Euskaltzainditik:

– *Euskaltzain osoak*: Jean Haritschelhar, Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Beñat Oihartzabal, Andres Urrutia, Pierre Charriton eta Emile Larre.

– *Euskaltzain ohorezkoak*: Pierre Andiazabal, Karmelo Etxenagusia, Ander Manterola eta Jose Antonio Retolaza.

– *Euskaltzain urgazleak*: Joseba Agirreazkuenaga, Kepa Altonaga, Adolfo Arejita, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Aurre, Ricardo Badiola, Luis Baraiazarra, Joseba Butron, Xabier Erdozia, Iñaki Gaminde, Sebastian Garcia Trujillo, Juan Luis Goikoetxea, Paskual Rekalde, Pello Telleria, Patxi Urribarren eta Juan Jose Zearreta.

* * *

Apirilaren 4an –igandean–, berriz, Lezamako Udalak amaiera eman zien Mikel Zarateren 25. urteurreneko ospakizunei, meza, musika-kontzertu eta herri-bazkariarekin. Euskaltzainditik, hauek izan ziren ospakizun horietan: Xabier Kintana, Jose Luis Lizundia, Patxi Goenaga, Andres Urrutia eta Pello Telleria.

ZORRIZKETAN

LEZAMAKO EUSKERA ALKARTEA

Lezaman, 2004ko apirilaren leian.

Lourdes Prudencio

Arratsaldeon, jaun-andreok:

ZORRIZKETAN Lezamako Euskera Alkartearen izenean, eskerrak eman nahi dizkizuegu *EUSKALTZAINDIAREN* martxoko batzarra gure herrian egin izanagatik, MIKEL ZARATEREN OMENALDIAREN barruan. Beraz, Jean Haritschelhar jauna, luzatu iezaiezu, mesedez geure partez, eskerronik zintzozena euskaltzain oso zein urgazle guztiei.

Esker bereziak, esker berezirik baldin badago, Andres Urrutia eta Jose Luis Lizundia euskaltzainoi, orain dela pare bat urte hasita, omenaldiaren presakuntza lanetan eman diguzuen laguntza eta aholkuekaitik.

Eskerrik asko, Karmelo Etxenagusia, Jose Luis Lizundia eta Andres Urrutiari, gaur Mikelen omenez irakatsiko diguzuenagatik.

Esker mila, JAGON Saileko kide guztioi, gure euskara hobetzeko egin duzuen lanaren emaitza historiarako Lezamarekin lotuta geratuko delako: Euskaltzaindiaren *Lezamako adierazpenean*.

Anitz esker, Pello Telleria jauna, bideko oztopo guztiak gaindituz, Euskaltzaindiaren bilkurak Lezaman eta Mikel Zarateren omenaldiko ekitaldien barruan egitea modu bikainean koordinatu duzulako.

Gure Mikel, herri gizona, abadea, irakaslea eta idazle bikaina izateaz gain, euskaltzaina ere izan zen, euskaltzain urgazlea. Haren produkzio-bizitza laburrean egin zuena ikusita, ez dugu dudarik euskaltzain oso ere egingo zela edo egingo zutela, bizi izan balitz. Eta gure ospea ospe, lezamarron harrotasuna eta harrokeria ezagututa, seguru gaude euskaltzainburu ere izango zela, bizi izan balitz (Haritschelhar jaunaren baimenarekin, noski, bere aurretik edo bere agintaldiaren ostean).

Txantxetakoak alde batera, guk, elkarteko euskaltzale apalok, Mikeli buruz ez dugu gauza berririk edo ez dakizuenik esango, ez da hori gure betebeharra eta. Gurea zera da, denoi eskerrak ematea eta, behar bada, testuinguru

honetan, Mikelen ekarpen askoren artean, bat azpimarratzea edo gogoratzea, besterik ez:

Mikel euskara batuaren aldeko izan genuen, zalantza izpirik gabe, eta horrela jokatu zuen bere liburuetan; baina beti ere etxeko euskararen nortasuna galdu gabe, batua eta euskalkia uztartuz, alegia. Gai honi dagokionez, garai latzak bizi izan zituen, baina, gaur egun euskara moderno eta kultura bizitzako erronkei aurre egiteko kapaz / gai den hizkuntza bat badugu, Mikel eta bera bezalako euskaltzale askori esker da. Eta, zelan ez, omenaldi honen ospakizunetan garela, bera lez, oso gazterik, gazteegi, joan zaizkigun Iskander Ojanguren eta Andolin Eguzkitza euskaltzaleei esker. Goian beude, hirurok ere.

Omenaldiko ekitaldiak amaitzear daude, azken txanpan sartu gara: bihar beste mahainguru bat, larunbatean kantaldia eta igandean Meza, kontzertu korala, herri bazkaria eta, bertsolariekin batera, amaiera. Gustura aritu gara eta ari gara lezamarrok eta txorierritarrok. Behar bada, Mikelek merezi zuena baino xumeagoa izan da, baina uste dugu gogotik segituko zuela Mikelek zerutik edo dagoen lekutik.

Eta, haren ikasleek esan edo kantatzen zuten bertso batzuekin amaituko dugu esan gura genuena:

DAKIGUNETIK EZ DAKIGUNERA

OINARRIETATIK ADARRETARA

EUSKERA

EUSKARA

HALA EUSKEREA

BATURANTZ EGILE

DANOK BATERA.

Besterik gabe, bi mila eta lau esker denoi.

MIKEL ZARATEREN omenaldia,

Lezama, 2004-IV-01

*Jean Haritschelhar,
eukaltzainburua*

Lezamako alkate jauna, jaun-andereak, arratsalde on.

Badakizue zertarako bilduak garen egun hemen, joan den ortziralean egin beharra, bainan joan gara kide baten laguntzerat, bere azken egoitzara. Eta hain zuzen, joan den ingandean ere Arruazun ginen, omenaldi bat egiten baitzioten arrazuarrek Jose Mari Satrustegiri, badu urte bat zendu dela eta beraz, igandean, egin da omenaldi hori. Ni uste dut omenaldi horiek beharrezkoak direla. Guk oroitzapen horiek behar ditugu aitziki, euskal memoriak ere berea behar du eta dudarik gabe hemen nahi nituzke alde batetik eskertu Mikel Zarateri buruz eginikako omenaldi hau, hilabete oso baten omenaldia izan baita, eztaikit zonbait ekitaldi egin dituzuen hemen, beti gogo hartuz Mikel Zarate. Anitzek bezala nik ere ezagutu dut Mikel, badakit zer lan egin duen, nola nahi zuen bultzatu euskara batua, bereziki, anaitasunean, bainan sekulan arbuiatu gabe bere euskalkia. Guk ere hala egiten baititugu eta Euskaltzaindiak ez baitu sekulan arbuiatu, ez baititu sekula arbuiatu euskalkiak, baina bai ikusten baitzuen holako hizkuntza amankomun bat beharrezkoa zela, hori bat azkenean euskaldun guzien arteko lokarria. Eta beraz, emeki-emeki, poliki-poliki, bere bidea segitzen du euskara batu horrek, bai komunikabideetan, baita ere gure idazleetan, eta emeki-emeki, poliki-poliki, bere bidea segitu du. Pentsatuz lehenbizikoak hor zirela eta lehenbiziko horietan Mikel Zarate bat bazela. Ez naiz gehiago mintzatuko, zeren eta beste batzuk mintzatu beharrak baitira horri buruz.

Nik bakarrik zorionak emanen dizkiok Lezamako herriari eta dudarik gabe ere *Zorritzetan* izan diren guzietan, zeren eta holako omenaldi baten egiteko behar da egin lan eta dudarik gabe hori egin duzue.

Eta azkenik, Lezamako alkate jaunari eta Lezamako zinegotzietan ere, zeren eta heien babesarekin egin baita omenaldi hau.

Nik uste dut gogoak aitziki behar ditugula guk baino lehenago euskaraz arduratu direnez eta ere pentsatuz haiek egin duten bidea guk segitu behar dugula eta gure ondokirik iristen direnek ere segituko dutela.

Eskerrik asko.

MIKEL ZARATE, BIZKAIERAREN ETA EUSKARA BATUAREN ARTEKO ZUBIGINTZAREN ESTRATEGA

Lezaman, 2004-IV-01

*Jose Luis Lizundia Askondo,
euskaltzain osoa*

Berbaldi honen xedea ez da Mikeli buruzko biobibliografia oparoa egitea, ez helburu apalagoa du. Alde batetik, non, noiz eta nola egin nuen haren ezagutza aipatuko dut laburki eta, bestetik, tituluan adierazten dudana garatuko dut, hots, bizkaieraren eta euskara batuaren arteko zubigintzaren estrategia izan zela azalduko.

1964-1966 urteetan egon zen Mikel Zarate Gereako abade. Gere(n)a, Ge-rea, Geria gaurko ahotan, Mallabia udalerriko bost kofradia edo auzo nagusietariko bat da, baina bere parrokia propioarekin. Durangoko merindade historiko eremukoa, beraz, baina Artibai arro edo isurikoa denez, Markinako artziprestazgokoa zen Mikelen garaian. 1960ko erroldan 124 biztanle zituen Gereak, baina elizaz, apur bat gehiago, zeren eta baserri-etxe batzuk gehiago hartzen baitzituen.

Garai horretan ezagutu nuen Don Mikel, Gerean bertan, hobeto esan Durango-Ondarroa errepidearen mendate den Trabakuan zeuden eta dauden bi ostatuetariko batean. Ostatuok, Gereako parrokiakoak dira, baina ni taberneta parrokiario nintzen, ez hango eliztar. Trabakubekoan zegoen ostatuz Don Mikel eta ni, hara, joaten nintzen nire Lambretta konpontzera eta, Trabakugoikora, dantza lotura, baina baita ere, Julian Zelaietaren etxea zelako ere. Jakingarria da 1965an talde batek Gerediaga Elkartea sortu genuela eta urte berean Euskal Liburu eta Disko Azoka ere. Hain zuzen, ni izan nintzen dirurik ez zeukan elkarte horren lehen diruzaina, baina, bigarrena, Trabakugoiko Julian, 1966aren azkenaldera. Mikelek hasiera hasieratik eta eskualde bertatik ezagutu zuen Gerediaga Elkartea eta haren emaitzarik oparoena, Liburu Azoka. Lekuko naiz. Hurrengo urtean, 1967an, D. Pedro Agirre Lupiola, elorriarra, Pedro Haundi, Gereara parroko etorri zanean, berarekin adostu behar izan genuen Estatuan zehar zeuden eskualdeko unibertsitate estudiantentzat Gerediaga Elkarteak Gereako abadetxean antolatu zituen Jardunaldiak, Aste Santuko oporretan. Ideia aurreko urtean Mikeli erraz salduta geneukan. Garai hartan holako biltzarrik egitea ez zen bat ere erraza, abade baten babes, abadetxe baten kokagune eta, dena esateko, Mallabiko alkate on baten, Galarragako

Eusebio Arregiren oniritzirik gabe. Klandestinitatean egin behar izango genuen. Orduan ezagutu nituen Mikel Zaratek bere lan batean aipatzen duen «kuadrenuen», solaskideak Gereako sakristau Patxi Gerenabarrena eta geroko Goikoetxeko Martzel Garitagoitia.

* * *

Gehienok jakingo duzue Mikel bokazio berantiarreko apaiza zela; guxtiagok, ordea, bere lehen lehenago, delineaioa ikasi ondoren, aparejadoretzakoak hasi zituela, orain, arkitekto tekniko deitzen denekoak ikasketak aparejadoretzakoak zirela, orain, arkitekto tekniko deitzen denekoak. Herrilanean eta bestetan kontratista familiakoa, bazekian, beraz, obragintza zer zen eta, behala aipatuko dudanez, zubigintza nolakoa zen.

Ene uste apalez, hau izan zen Mikelek gure nazio hizkuntzari egin zion emaitzarik garrantzitsuena, hots, mendebaldeko euskalki nagusiaren, bizkaieraren, alegia, eta euskara batuaren, nazio hizkuntza estandarren arteko zubigintzaren estrategia izatea.

1978.urtean, Bergaran, Euskaltzaindiak bere sortzailetariko bat, Luis Eleizalde omentzea erabaki zuen haren jaioterrian, mendeurrena ospatuz. Euskaltzain oso izateaz gain, matematika irakasle eta politiko pragmatiko ere izan zen Eleizalde jeltzalea. Euskara batuaren premia 1919an jadanik ikusi zuena, zoritxarrez laster hil bazen ere. 1968ko Arantzazuko Biltzar famatutik hamar urtera izan zen, beraz, hurrengo Biltzarra, VIII. Urte horren hasieran Euskaltzaindiaren idazkariak, Juan San Martinek eta biok deliberatu genuen beharrezko zela geografikoki bazterrekoak ziren euskalki bien lekukotasuna, bizkaierarena eta zubererarena, alegia, Biltzar horretan agertu. Biok bat gentozen nor zen bizkaieraren eta euskara batuaren zubigile, obragile edo kontratista Mikel Zarate. Zuzendaritzaren onarpenez eta Biltzarraren antolakizun idazkari legez, Deriora hurbildu eta Mikelen baietza jaso nuen. Bergarako Erret Seminarioan, UNEDeko gelan, maiatzaren 28an hileroko osoko bilkuraz gain, Euskaltzaindiak Biltzarraren finkatzeaz bilera berezia ere egin zuen. Hara zer dioen orduko batzar agiriak:

«Euskaltzainburuak irailean egiteko gareen Bergarako Biltzarraren xedeak agertu ditu: Luis Elizalderen omenez eta euskara idatziaren batasuna gai hartuz, Arantzazun 1968an eta geroztik eman diren batasun arauak aztertzeaz eta birrikustez, ortografia hauziak bereziki, eta azkenik batzarrerako deian gomiteak egiteaz. Ondotik, antolakizun batzordearen azalpenak egin ditu, bertako idazkari izendatu zen J.L. Lizundiak. Hizkuntza batzordearena J.A. Letamendiak, zenbait txostenen berri emanaz: X. Kintanak; idaztarauak; L.M. Mujika fonemaz; Mikel Zaratek, bizkaieratik batura...».

Organigrama ere onartu zen, zeinetan agertzen baita buru L. Mitxelena buru eta J.A. Letamendia idazkari eta kideen artean Mikel Zarate.

Juan San Martinek adiskidantza handia izan zuen Mikelekin eta berak egin zion gure *Eusker*a agerkarian deitu ohi dugun «hilberri txostena». Bi orrietatik pasarte hau bakarrik irakurriko dut:” 1978. urtetik Deustuko Unibersitatean irakaslea zen. Eta, urte horretan, Euskaltzaindiaren eskariz gertatua, Bergaran egin zen Biltzarean, «Euskara batua eta euskalkiak» zeritzan txostena irakurri zuen. Gai hontaz oso kezkatua zegoen bizkaiera batura eraman ahal izateko edo bizkaieraren guna euskara idatziaren batasunera emateko».

Hitzaldiaren pasarte zenbait ekarriko nituzke, baina ez nuke luzatu nahi. Labur labur:

«Hain zuzen ere, ez dut uste inongo hizkuntza batu bizirik, komunikabide jator izateko gai den hizkuntza batu bizirik, hamar urtetan batu denik, eta batu daitekeenik ere ez...»...; «Arrese Beitiaren behinolako zortziko txikia:

Bizkaia, Gipuzkoa
ta gure Araba,
eta Nafarroagaz
lau anaia gara;
beste aldeko irugaz
batzen gareala,
zazpirok bear dogu
gaur salbau Euskara»...;

«Eta euskara batua egiteko, euskaldun guztientzat ulerbide jator pozgarri izango den euskara batu bizi bat egiteko, kontzientzia hori balute euskaldun guztiek, beste hamar edo hogeitau urte barru, beharbada, euskara baturik egongo litzateke eta Euskal Herriak nortasun eta zertasan berri bat izango luke, dudarik gabe»...; «Baina ahalbait arinen batzeko eginalak egitean, kontzientzia ta jokabide ezberdinak ditugu. Zergatik? Jakinezatasunagaitik esango nuke, lehenengo ta behin, kulturgabetasunagaitik, analfabetoak garelako»...; «Jakinezatasunak zabarkeriara eramaten gaitu: gizonai, gizonari, gizonari, gizonari, gizonari...; zabarkeriaran eramaten gaitu, euskararen zatiketara ta euskara batuaren aurkako funtsgabeko ausartzia lotsagarria. Horrela euskara batua ezezik, euskalkiak heurak ere hondatu egingo ditugu. Horixe da euskararen hondabidetik egokienetariko bat da erdara batura berehalaxe jotzeko ibilbiderik aukerakoena»...; «Burrukan ari diren bi, besarkatu ere egiten dira»... Eta gu ere, euskaldunok, espainiarren aurka ibili izan gara beti burrukan, eta azken berrogei urteotan batez ere»...; «Eta demokrazia bidez lortu nahi baldin badugu Euskal Herri batu bat eta hizkuntza batu bat, errespetozko askatasunez lortu behar dugu, euskara batua ta euskalkiak errespetatu, euskalki guztiak baturako bidean begirunez, jakituriaz ta zentzua jartzeko ahaleginak egingez»...; «1. Euskararen batua esatean, batzuk batua bakarrik hartzen dutela kontutan esan genezake. Baina euskara (izena), lehenago da batua (izenlaguna) baino. Euskalkiak lehenago dira euskara batua baino, oraingoz bizirik euskalkiak bakarrik ditugu ta. Hala ere, euskalkiak elkarganatu ta batu egiten ez baditugu, euskara batu bat euskalkien bitartez egiten ez badugu, euskalkiak heurak ere, gaurko bideetatik badoaz behintzat, hondatu egingo dira ta Euskal Herri Erdal Herri bihurtuko da. Goitik behera euskara batu bat jartzea oso erraza da, esperantoa bezalako euskara

batu bat egitea oso erraza da, baina komunikabide izateko euskara batu bizi bat egitea ez. Behetik gora joatea, euskalkiak euskara batu baterantz bultzatzea dugu, ba, lehenbiziko eginbeharra. Ta horretarako nahi ta nahi ezkoa dugu alfabetatzea»...; Ba dakit hizketa biziaren gatza indargetu egiten dena horrela, alfabetatzeak kolorea ta grazia kentzen diona hizkera bizi nahastuari. Baina premiazkoagoa dugu oraingoz bizia, zehaztasuna ta batasuna, gatza eta kolorea baino. Beste alde batetik, alfabetatzearen ekinean, dakigunetik ez dakigunera joatean, euskalkietatik baturantz jotzean, euskalkikeriaren eragozpena dugu. Hala ere, biak kaltegarriak izanik ere izanik ere euskara batua egiteko, euskalkikeriaren eragozpenak kalte gutxiago egiten duela uste dut batukeriaren eragozpenak baino. 2) Hizkuntza mailak berezi ta argi ta garbi jarriko nituzke alfabetatzean, hau da, errezenetik zailenerainoko mailak jarriko nituzke, mundu guztiko eskoletan egiten den legez»... «Hogei urtetan ari naiz irakaskintzan eta ondo dakit zelakoa den gure nahaste-borrastea ortografiaren arazoan. Izugarria da lotsagarria! Eta hori erdarazko ortografia baino askozaz ere errazagoa delarik euskarazkoa! Askozaz errazagoa dudarik gabe. Erdaraz egin ditugun hogei ta bost mila orduak gogoratu behar berriz ere. Zenbat ordu eman ote digu euskal ortografia ikasten? 4) Morfologia ta lexiko aldetik, aspaldion asko ere asko aurreratu dugula esan behar batasun bideetan zehar. Deklinabidea gehien batean baturik dugu ta ortografia bezala deklinabide bat erabiliko nuke nik beti euskarazko idazki guztietan.»...; «Egina dago egon aditz batu bat paperean; baina eginda egon arren, oraindik zer azterturik asko dugu aditzaren alorrean aditz batu bizi bat lortu baino lehen»...; «Horrexegatik, oraingoz, aditz «sub-standar» bat, baturantzako maila bat egitea eskatuko nuke bizkaitarrentzat Bizkaierazko aditz “sub-standar” hori izan zen eta lapurtar eta zuberotarrentzat ere bai agian, euskara bizitik euskara batu bizirantz goazelarik ahalbait arinen ta egokiro joateko. Bestelan, Bizkaia behinik behin, nik neuk ez dut beste bide egokiagorik eta errazagorik ikusten». «1968. urtean Arantzazun Mitxelenak esana gogotan harturik: «Ez letorke kalte handirik oraingoz, beste puntuetan bateratsu bagen-toz, aditz laguntzaile molde bat baino gehiago usatzetik. Egizta bait daiteke aditz laguntzaile horiek isomorfoak edo direla euskalki bakoitzean, eta euskalki batetik bestera ere bai, beharrik». 6) Joskerari buruz ere ba dugu zeri ekin asko, euskalki bakoitzaren joskera motak aztertzen eta batzen. Baina oraingoz ez du hainbesteko eragozpenik sortzen batasun bidean zehar gozelarik ta beste baterako utziko dugu joskeraren arazoa». «Amaitzeko hauxe esan nahi nizueke: Euskararen ikuspegitik euskararik txarrena erdararik onena baino hobea dela eta bizkaieraren esaera ta joskera, gipuzkeraren indar ta ardatza, lapurteraren dotoretasun ta ozentasuna, nafarreraren sustrai ta antzinatasuna eta zuberoteraren lilura xarmanta haintzat eta ontzat harturik eta zaindurik, eginahalak egin ditza-gula guztiok euskara bizi batu bat ahalbait arinen egiteko».

Bizkaierazko aditz “sub-standar” hori izan zen Bilboko Hizkuntza Esko-la Ofizialeko talde batek prestatu eta Euskaltzaindiak, arau ordezkaritza osoa emanaz, batzorde batek onartua, zeinetan zeuden Luis Villasante, Eusebio Erkiaga, Alfonso Irigoien, Juan San Martin, Lino Akesolo, Josu Oregi denak bizkaitarrak euskalkiz, Eusko Jaurlaritzara igorri, zeinen Hezkuntza Administrazioak eskatu bai zigun espresuki. Eta, honetaz, gure Mikelek zortzi bat urte lehenago.

Mikel Zarateren hitzaldi eder hori, Bergarako Biltzarreko akta akademi-koetan irakur daiteke. Eta eder ez da nik diodalako bakarrik, jarraian izanda-ko elkarrizketako zenbaitzuek hala ziotelako baizik. Hara hor aipamenok: Kol-
do Mitxelenak:

«Zarateren hitzaldian, biziro egokiak iruditu zaizkit zenbait gauza. Ez naiz ari, niri gustatzen zidan ortografiari bakar bat hortaz. Lehendabizi ongi eta garbi gelditu dena zera da, alegia, gauzak egin behar direla, euskaldunak, dakienetik ezta kienera, eta bidea, alfabetatzea dela»; Patxi Altunak: «M. Zarateren hitzaldia bikaina iruditu zait»; Bixente Latiegik: «Mikeli esan nahi diot bere hitzaldia, orain artekoetatik, praktikoaena izan dela. Konforme nago puntu gehienetan»; J.J. Azurzak: «M. Zarateren hitzaldia ederra izan da, oso gustora entzun dut»; Pedro Pujanak: «M. Zarateren euskara batua eta euskalkiak izeneko lana ederra entzun ondoren...»; Jose Mari Irazolak: «hizlariak esan duenarekin oso bat nator».

Mikel Zarateren liburu askoren aipamenak ekarriko nituzte. Bat bakarrik aipatuko dizuet, ordea, *Euskal Ortografia (Baturantz)* izenekoa, Leopoldo Zugaza Editor, Durango 1978, gaurko nire gaira datorrelako, hain zuzen. «Bi maisuren iritziak» izena eman zion fantasiako elkarrizketaz, Mitxelena, D. Manuel Lekuonak eta berarekin asmatutakoa, oso polita da. Sarrerak ere ez du ezer alperrik galtzekorik, Axularren hitzak ere, beretzat argudio legez hartzen baititu:

«Hala ere, gauza bat ikusten da argi eta garbi: Beste hizkuntzek batasun bat lortu dute, koine ofizial literario bat dute; baina euskarak, euskerak, eskuera ez du... Eta horixe da lotsagarriena eta penagarriena: Axularren hitzok oso egokiak direla gaur ere liburu honen sarreran jartzeko, oso egokiak direla, zoritxarrez, hiru hurrehun urtegarrenean ere». Eta Axularrekin hasi eta Axularrekin bukatzen du: «Zeren halatan, ez litzateke euskara hain labur, eskas eta ez hertsia, nola munduak uste baitu, eta baitaduka, dela».

Baina, nire ustez, Bergarako Biltzarreko hitzaldiak lekukotzen didana, baina baita ere bere emaitza literario eta intelektualak, beste hau da: Mikelek ez zuen onartzen euskara batu edo estandarren, hots, gure nazio hizkuntza amankomunaren kontra bizkaiera jartzea. Egia da euskara batua euskal mendebaldeko hizkeratik urruntxo zegoela, baita Ipar-Ekialdekoetik ere, esango luke euskaltzainkide eta idazle oparo ditugun Jean-Louis Davant eta Txomin Peillen zuberotarrek, baina ez ziren eta ez dira euskara batuaren kontra inoiz jarri eta bietan idatzi dute asko. Gure herrialdeko sektore batek, ordea, bizkaiera euskara batuaren aurkako kanpainan arma bezala erabiltzen zuen. Horrez gain, gutxitan izaten zen tradizio ederreko bizkaiera literarioa, baizik eta hogeigarren mendeko bizkaiera purista bat, Sabinorena berea ere ez, ez eta Azkue puristarena, «azkuence» deitu zutena, alegia. Batzuen sektarismoa zen, beste batzuen, ordea, gerra aurreko eta osteko belaunaldiko eta meritu pertsonal ugari euskaltzale zenbaiten «aggiornamento»rako ahaleginik edo ahalik eza. Euskalgintzak ere izan ditu Ottavianniak. Eta arazo larri honi irtenbidea ematen saiatu zen Mikel eta baita lortu ere. Eta abade sartu aurreko ikasketa eta ofizioari jarraiki, obragintzari –Iparraldeko hitz adierazgarri

hau hartzen dut— heldu zion. Eta hemen dator nire hipotesia, abade izateak asko lagundu ziola nik izenburuan esandakoaren ildotik, bizkaieraren eta euskararen arteko zubiaren estrategia disenaitzeko. Hara hipotesiareko nire uste batzuk: 1. Gereaa-Mallabiko eta Lezama-Txorierriko hizkerek, biak bizkaiera izan arren, alde nabarmena daukate, hori berak aitortzen zuen; 2. Baionako elizgizonak, Bilbokoak bezalaxe, «lingua vernacula» delakoetara liturgia tes-tu eta besteek latinetik itzultzen ziharduten. Berak bazekien Lafitte, Xarriton, Andiazabal eta beste baxenafar-lapurteraren erabilera ez zutela ariete legez euskara batuaren kontra jartzen, aliatu baizik. Bestalde, bazegoen Iruñeko elizbarrutian beste apez bat, Jose Maria Satrustegi, alegia, ez zegoena bat ere eroso Nafarroan gipuzkera eliz testuetan sartzearekin, nolabait, Elizaren «lingua franca» gipuzkera erabiliz. Hori hainbeste aldiz entzun nion Jose Mariri berari. Bistan zeukan, Mikelek, bizkaiera euskara batuaren kontrako aurkari ezin zitekeela izan. Obragintzako bizitza zibiletik bizitza eklesiastikora berandu sartzeak, ohiko heziketadun elizgizon askok ez zuten pragmatismoaz hornitua zegoen eta horrekin baliatu zen zubigintzarako. Zeren eta «dakigun (ibai ertzetik, bizkaieratik, kasu honetan) euskalkitik, ez dakigun (beste ibai ertzera, euskara batura) estandarera igarotzeko, zubi estrategiko bat diseinatu eta egin behar zen eta, diseinatu eta egin zuen. Hori berari zor diogu eta estrategia hori gauzatzeko kontratista enpresa bat behar zen, bera mundu enpresarial horretan ibilia zen, bestalde. Ene ustez, Labayru Ikastegia izan zen enpresa hori. Eta eskertzekoa da. Izen bi bakarrik aipatuko ditut: Ander Manterola eta Adolfo Arejita.

MIKEL ZARATEREN IRAKASBIDEA

Lezama, 2004-IV-01

*Andres Urrutia,
euskaltzaina eta **Jagon** Sailburua*

Ez neban nik Mikel Zarate zana ezagutu. Ez, behintzat, buruz buru eta mintzoz mintzo. Bai, ostera, idatziz eta letra moldez, harenak diralako nire euskalduntze-bidean erabili ditudan hainbat norabide eta gogoeta.

Izan be, orain dala hogeita bost urte, Euskal Herritik kanpo nintzan, Madril aldean, gerogarrenean nire ogibidea izango neban eskribautza-titulua eskuratzeko neke eta lorretan. Ikasteak izten eustazan une atsegin hareetan, euskarazko testuen irakurketak betetzen ninduan, zuzenbidearen letra lehorra literaturaren letra gozoaz trukatuta.

Apirila zan haren hilbarri-albistea ezagutu nebanean, Reina Victoria kaletik behera, unibertsitateko urian sartuta. *DEIA* egunkaria zabaldu, eta berehala joan jatazan begiak Mikel Zarateren heriotza ekarren lerrokadara. Harenak irakurriak nituan han bertan, eta banekian, eskuartean euki barik be, *Haurgintza Minetan* izeneko nobela argitaratuta eukana.

* * *

Horraino hasierako kontua. Egunerokotasunaren indarrak, bistan da, laster ahaztuarazoten deusku joanaren gomuta, eta gertakari barrien gosekil egiten. Barriren barri bizi gara, eta, jakina, orduko haretan, bazan Madril eta euskalgintza zegaz lotu eta non uztartu. Bitoriano Gandiaga be, urrun ez, eta haren *Uda Batez Madrilen* ahorik aho etorren, euskal poetaren ikuspegi uritarra astinduz.

Astinaldi gogorra izan zan ha, eta ez, askok uste izango dabenez, Mendatako olerkariaren aldetik etorri jatana. Haizea, argi dago, bestetik eta besterik etorren. Horretara, Bilbora etorri nintzan batean, koadrilako lagun batek atara eustan autua:

- Mikel Zaraterena badakik?
- Bai, eta...?

– Joan dan udan haren ikasle izandakoa nozu. Bene-benetan zoragarri eta asko ikastekoa.

Autu labor horrek zer pentsa emon eustan. Esan eta egin, adiskide ha eta biok euskararen aldetik bis-bisean ibili, eta nire euskarari bultzada bat emotea erabagi neban. Hurrengo udarako prestakuntzak egin eta Labayuren Ikastaroan parte hartzeko prest nengoan (1979).

Lehen eguna. Niretzat danak ezezagunak. Gelara sartu, eta irakasleak Mikel Zarateren aitamena egin eban. Estraineko entzun neban harako leloa, *Dakigunetik ez dakigunera*, bizkaieratik batura, gaur egun barra-barra dabilena askoren aho-mihietan.

Ha didaktika barria zan niretzat, ikasmodu apartekoa, behinola *Kresala* haretan egin neban lehen saiotik harantzago joan eta Arranondoko portutik euskararen itsas zabalera eroango ninduana.

Etxetik nentorren euskaldun. Ez oso, Bilboko erdal itsasgorak itolarrian hartua nindualako. Euskaldun bizi nahi neban, euskal itsaso horretan bizimodu ganorazkoa izateko. Igeri egiteko-eta txalupa sendoa Mikel Zarateri esker neban. Harek eta haren aldamenekoeak eta ondorengoeak: Karmelo Etxenagusiak, Ander Manterolak... erruz eta erraz erakutsi eusten egingarria izan eitekeala euskaldun bizitzea gaur egungo Euskal Herrian, nor bere tradizioetik hasi eta euskaldun guztien tradizio erkidea eskuratuz, besteak beste, norberaren tradizioa be euskaldun guztiena dalako.

Mikel Zarateren irakasbidea titulua jarri deusat testu honi. Ez dakit, testua baino, ezagutu ez dodan pertsona batenganako miresmen-autorpen hutsa ez ete dan izango. Egin dagidan, bestela, eta gaiak eskatzen dauan moduan, berebiziko norabide-aldaketa, eta laburtu dagidan, beraz, zuen aurrean irakasbide horren nire lehen egiaztapena, mende laurden geroago harek itzi euskuna berba labor eta zerbarri zehatzetan zirriborratzeko.

* * *

Zein da, beraz, XXI. gizaldi hasieran Mikel Zarateren irakasbidea, euskaraz bizi, euskaraz lan egin eta euskara bera landu nahi dauan unibertsitari edo profesional batentzat?

Argi daukat berori ezagutu ez arren, eritzikide nazana Zarateren irakasbideagaz, haren oinordetzaren edukia –zilegi bekio eskribauari bere zeregina– hartzekoan jarri behar dala, eta ez zorrean. Horrexegaitik, hain zuzen be, lau-tara laburbilduko dot nire eginbidea:

A) Lehen haria Zarateren jokabiderik nabarienean jarriko dot: euskara landu, norberarengandik hasi eta norberaren tradizioetik abiatu, beti be ahaztu barik zein dan helburua: euskara batu baten bidean ibiltea.

Zalantzasak zan orduan (orain hogeita bost urte) euskara batuarena. Batzuk alde, bestetuk –beste batzuk– kontra; batuaren eta euskalkien arteko pil-pilean egoan aldi haretan. Demasiak eta gehikeriak be nongura, bateko eta besteko pentsamenduen aldetik. Mikel, beharbada, bidegile bakarrenetarikoa, eta, Jose Luis Lizundiak oraintsu esan deuskunez, zubigilea be bai.

Ni neu be, hortik joan nintzan, eta berehala aurkitu neban haren irakasbidea mamitzeko aukera. Izatez, lezamarrak kezka bizia plazaratu euskun. Mikelek bizkaiera ikusten eban arriskuan, bizkaierak berez daukan tradizioagaz batera. Esan asko eta idatzi gitxi, leporatzen eutsen bizkaitarrei, eta, horren abiapuntutik be, bizkaierak erreka jo ez egian gura eban.

Zuzentzeko bide bakarra aurkitu eban berak, bizkaitarren nortasuna eta ekarpenak ziurtatzeko. Bide bakar hori lana zan, euskarazko testuak sortu, landu eta osatzea. Hortxe ikusten eban bidea, esanetatik ekintzara igarotzeko modu bakarra.

B) Horra, beraz, haren irakasbidetik azpimarratu nahi dodan bigarren ardatza. Ekinez ekin eta lanen bidez mintzatzea. Iparraldeko harek esan legez, *obrak mintzo*, bizkaierazko tradizio lexikala, kulturala eta komunikatiboa egoki sustatzeko, eta euskara batuan txertatzeko.

c) Bada, hirugarrenez, lana egiteko modu eta manera. Horretan be Mikel Zarate sasoiko fruitua da. Aurreko erregimen politikoaren buruzagia hil, eta Euskal Herriak bere burua antolatzen ziharduen. Arrapaladan etozen gerogareneko kontuak izango ziranak, orduan amets eginbako hutsak.

Telebista, unibertsitate, egunkari eta komunikabideak, kale-giroa, administrazioa... euskaldun nahi zituen Mikelek. Areago, euskaldun alfabetatuak, euren hizkuntzaren jabe eta jakitun. Euskara noranahikoa, aspaldiko poetak esan ebanez. Berak be, olerkari barri (edota barriztatu, zehatzago esateko) eta ahots goraz aldarrikatu eban euskaldunen bultzada ezohikoa.

Egin-eginean be, gorantza etorren olatua, baserritarren eraginez baino, euskaldun kaletarren porasuz eta indarrez. Nonbait ipini behar espiritu barria, eta Zaratek, adi-adi, euskararentzat premiazkoa zan zientziaren baitan jarri eban, bertso mamitsu batzuen bidez:

*Unibertsitate zaharreko zemento erdalduna
Arrakalatu egin da gazteria berriaren garraisiz
Kutsadura grisaren barne eztanda irakinean.*

.....

*Unibertsitate zaharreko lur euskalduna
Udaberriko bizi ta edertasunez
Nire ametsaren itxaropenezko atseginetan.*

Horraino esana, gutako askorentzat berebiziko egitasmo bihurtu dana urteen joan-etorrietan. Horraino be haren irakasbidea, zahagi zaharretan euskararen ardao barria isuri nahian. Hori, hogeita bost urte geroago, zeregin erraza danik ez dot esango. Aitzitik, eginbeharrekorik latzenetarikoa dogula plazaratuko dot, gaur guztion begien bistakoa dana orduko Zarateren eta beste batzuen aita eta amapontekotzaren hartzekoan jartzeko.

D) Abian gara, alabaino, bide horretan, eta abiatzean bada, laugarrenez eta azkenez, osterantzeko irakasbide zuhurra Mikel Zarateren jardunean. Hain zuzen be, lanarena, ahaleginarena, norberaren jakinbidea beste askorengana helduarazoteko eta euskalgintzaren mezua zabaltzeko. Berba batez esateko, irakaskuntzarena.

Amaibako zerrenda osatuko leuke haren esku-erakutsiak. Eliza testuak euskaratzea, euskaldunte-alfabetatze ikastaroak, unibertsitateko eskolak... Gela honetan diran askoren lekukotza da horreen guztien fede-emoilerik sendoena. Irriño bategaz agurtu geinkez holakoak, euskararen munduan hainbat profesional buru-belarri dabilen une honetan. Mikelen borondatezko ekina be, sasoiari sasoiko kontu huts moduan hartzeko arriskuan erraz jausi. Bego.

Nago, ostera, ondino be, horren preminean ez ete gagozan, holakoak bul-tzateko tenorean, espiritu horrek aurrera eroan gagizan gure eguneroko zereginetan.

Harek horretan emon eban bizia. Horretan be itzi euskun irakasbidea. Behinola Juanjo Zearreta lagunari entzun neutsanez, Mikel Zarateren heriotza mintsuan haren aitak esandakoa gogoratu behar: *Lanak hil dau!*

Honaino, beste barik, aurreko irakasbideen labur-beharra. Nor a proposa-go, orde, aurrekoarena bi lerrotara ekarteko, Mikel Zarate bera baino?

Bertsogintza eban harek kutuna, esamoldeak etxetiarrak:

*Bat euskal herriak
Bat euskalkiak,
Bat denok beti.
Batu dezagun
Euskara ta ikasi.
Berritu dezagun
Euskal Herri!*

MIKEL ZARATERI OMENALDIA

(2004ko urtarrila-apirila bitartean)

Lezaman, 2004-IV-4

Fernando Olabarrieta.

Lourdes Prudencio.

Zorritzketan Lezamako euskara alkartea

Mikel Zarate Lejarraga euskal idazle izan zenaren heriotzaren 25. urteurrenean, «*Zorritzketan Lezamako Euskera Alkartea*» eta Lezamako Udalak omenaldia antolatu dugu bere izenean honako helburu hauekin:

- Mikel Zarate, euskal idazlea gogoratu: bere liburuak eta lanak ezagutzera eman, berrargitaratu, zabaldu, ulertu eta behar den moduan baloratu...
- Mikel Zarate, herriko gizona eta euskaltzalea gogoratu.
- Mikel Zarate, eliz-gizona gogoratu.
- Bere ezaugarriak –zintzotasuna, euskaltzaletasuna, lan oparoa, handitasuna– «erabiliz» eta aprobeztatuz, Lezaman eta Txorierrin euskara indartu, prestijiatu eta bere erabilera bultzatu. Herriko talde eta erakundeei, baita Txorierriko euskara talde eta kultur erakundeei ere, omenaldian aktiboki parte har dezaten eskaria zabaldu.

Ondoren, antolatu ditugun ekitaldien zerrenda eskaintzen dugu, modu kronologikoan sailkatuta:

EGUNA	ORD.	EKITALDIA	TOKIA
		2003	
Abenduak 6	11.30	AURKEZPENA / PRENTSAURREKOA Durangoko <i>Azokan</i> .	DURANGO (azoka)

EGUNA	ORD.	EKITALDIA	TOKIA
		2004	
Urtarrilak 15	20:00	<i>Aikor!</i> en 2. urtebetetzea. OMENALDIAREN AURKEZPENA Lezaman. (Aurkezlea: Pedromari Goikoetxea). Part.: Xabier Goienetxe zuzendaria, Lurdes Prudencio <i>Zorritzaketaneko</i> koordinadorea, Unai Elorriaga idazlea, Joseba Butron euskaltzaina eta lezamarra, eta Natxo De Felipe abeslaria.	LEZAMA (Goitioztako txokoa)
Urtarrilak 23	19:00	«Lezamako toponimia» liburuaren eta maparen aurkezpena Egileak: Asier Bidart eta Aintzane Etxebarria. Aurkezlea: Adolfo Arejita. Mahaikideak: Luis Ramon Alvarez, Ander Manterola, Lurdes Prudencio eta egileak.	LEZAMA (kultur aretoa)
Urtarrilak 30	19:00	OMENALDIAREN HASIERA LEZAMAN Lezamako eskolako umeak (aurkezlea Igor Urrutikoetxea): « <i>Bilbo irribarrez</i> » antzeztuta eta bertsoak.	LEZAMA (kultur aretoa)
Urtarrilak 30	20:00	OMENALDIAREN HASIERA DERION <i>Labayru Ikastegia</i> . Ekitaldi kulturala: Hizlariak: Jokin Gorozika, Igone Etxebarria, Jesus Etxezarraga, Ritxar Zarate eta Jabi Agirre.	DERIO (Seminariora)
Urtarrilak 31	19:00	<i>Kukubiltxo</i> eta <i>Oskorri</i> zuzenean: « <i>Ekidazu</i> » antzezlana. (Aurk.: Udane Goikoetxea. Antolatzaileak: Derioko <i>Tximintx Euskera Alkartea</i> eta Derioko <i>AEK</i>).	DERIO (polikiroldegia)
Otsailak 1	12:00	Meza Nagusia Lauroetako <i>San Miguel</i> ermitan (Abadea: Martin Orbe).	LAUROETA (Loiu)
Otsailak 1	13:00	Meza ostean: <i>Mikel gure abadea</i> izan zenari buruzko elkarrizketa. Juan Luis Goikoetxeak zuzenduta. Ondoren: hamaiketakoa.	LAUROETA (Loiu)
Otsailak 1	14:00	Herri bazkaria <i>Aurregoiti</i> jatetxean.	LAUROETA (Loiu)
Otsailak 1	16:00	Bazkalondoan bertsolariak: Xabier Amuriza, Jon Azpillaga eta Jon Lopategi (Lauroetako ekitaldien antolatzailea: Jai-batzordea).	LAUROETA (Loiu)
Otsailak 6	20:00	« <i>Agate Deuna</i> » kontzertua, Ohiana Astobietak aurkeztuta: Zamudioko <i>Bertoko Soinu Tresnen Elkartea</i> . (<i>Ekidazu</i> abesbatza «Santa Ageda» kantatzen).	LEZAMA (kultur aretoa)

EGUNA	ORD.	EKITALDIA	TOKIA
		2004	
Otsailak 27	20:00	Larrabetzuko <i>BBK (Bihotz Bakartien Kluba)</i> : poema musikatuak.	LEZAMA (kultur aretoa)
Martxoak 5	19:30	<u>I. Mahaingurua</u> : «Mikel idazlea». (Aurk.: N. Peñafiel). Koord.: Joseba Butron. Part.: Ander Manterola, Gotzon Garate, Jon Kortazar eta Juan Manu Etxebarria. (Jon Kortazar: Mikelen « <i>Etorriaren zorabioz</i> » liburuaren aurkezpena) Amaieran: luntxa Lezamako txakolinarekin.	LEZAMA (kultur aretoa)
Martxoak 10	20:00	<i>Laqatzu</i> Zamudioko Euskera Alkarteak antolatuta: Bibiñe Pujana, ipuin kontalaria, Mikelen ipuinak kontatzen.	ZAMUDIO (Dorretxea)
Martxoak 12	19:30	<u>II. Mahaingurua</u> : «Ha bai gizona!». (Aurk.: Mikel Zarate Yurrebaso). Koord.: Juan Luis Goikoetxea. Part.: Iñaki Aretxabaleta, Lontzo Zugazaga, Lauroetako Miren Goitia eta Gorka Zarate. («Gure Mikel» liburuaren eta « <i>Ekidazu</i> » diskoaren aurkezpena). Amaieran: luntxa Lezamako txakolinarekin.	LEZAMA (kultur aretoa)
Martxoak 26	10:00	<i>Euskaltzaindia</i> : ohiko batzarra («Lezamako adierazpena»)	LEZAMA (batzar aretoa)
Martxoak 26	21:00	<i>Laqatzu</i> Zamudioko Euskera Alkarteak antolatuta: Bertso-afaria, Mikelen omenez: Andoni Egaña, Unai Iturriaga eta Etxahun Lekue bertsolariekin	ZAMUDIO («Jana» jatetxea)
Martxoak 27	13:00	Zamudioko Udalak antolatuta: Mikelen omenezko Harriaren eta Oroigarriaren inaugurazioa. Ondoren, hamaiketakoa Zamudioko taberna batean.	ZAMUDIO («Mikel Zarate» enparantza)
Martxoak 28	13:15	<i>Larrabetzu</i> Musika Eskolaren eskutik, kontzertua. (Aurkezlea: Leire Iturrioz) 1. Euskal abesti lirikoa (U.Alonso: sopranoa; C. Melendez: pianoa). 2. Akordeoi taldea. 3. <i>Izar Argia</i> abesbatza. 4. Kamara orkestra. 5. Kamara orkestra eta <i>Izar Argia</i> abesbatza.	LEZAMA (eliza)
Apirilak 1	18:30	<i>Euskaltzaindiaren</i> ageriko bilkura (Andolin Eguzkitzaren heriotzagatik atzeratua), Mikel Zarateren omenez. (Mahaikideak: Luis Ramon Alvarez, Jean Haritschelar eta Lurdes Prudencio. Hizlariak: Karmelo Etxenagusia, Jose Luis Lizundia eta Andres Urrutia). Amaieran: musika saio txikia <i>Ekidazu</i> abesbatzerekin eta luntxa Lezamako txakolinarekin	LEZAMA (kultur aretoa)

EGUNA	ORD.	EKITALDIA	TOKIA
		2004	
Apirilak 2	19:30	<u>III. Mahaingurua</u> : «Euskararen egoera Lezaman». (Aurk.: Xabier Goienetxe). Part.: Iñaki Bilbao, Lurdes Prudencio, Fernando Olabarrieta, Leire Iturrioz eta Alaitz Gana. Amaieran: luntxa Lezamako txakolinarekin.	LEZAMA (kultur aretoa)
Apirilak 2	22:00	Lezamako «Pelota eskolak» antolatuta, Pilota partiduak (eskuz banakako 2004ko txapelketa: EUGI-PASCUAL kanporaketa eta binakako beste partidu bat).	LEZAMA (frontoia)
Apirilak 3	22:00	Gaizka Peñafielen « <i>Ekidazu</i> » diskoaren aurkezpena: entzunaldia eta bideo emanaldia (Aurkezlea: Ohiana Astobieta) <i>Oskorriren</i> kontzertua zuzenean.	LEZAMA (frontoia)
Apirilak 4	12:30	Meza Nagusia , Karmelo Etxenagusia Gotzainarekin eta Andoni Gerrikaetxebarria, Lontzo Zugazaga, Patxi Iribarren eta Jesus Mari Etxebarria abadeekin.	LEZAMA (eliza)
Apirilak 4	13:15	Kontzertua: musika korala. (Aurkezlea: Leire Iturrioz). <i>Ekidazu</i> abesbatza (zuzend.: Jabi Agirre) eta <i>UPV/EHU</i> -ko abesbatza (zuzendaria: Enrique Azurza).	LEZAMA (eliza)
Apirilak 4	14:30	Herri Bazkaria (prezioa: sei_). (Txartelak salgai Lezamako denda eta tabernetan, eta Txorierriko euskara elkarteetan).	LEZAMA (frontoia)
Apirilak 4	17:00	Bazkalondoan bertsolariak: Xabier Amuriza, Jon Azpillaga, Elortza, Etxahun Lekue, Jon Lopategi eta Angel Mari Peñagarikano. (Aurkezlea eta gai-jartzailea: Pedromari Goikoetxea).	LEZAMA (frontoia)
Apirilak 4	19:00	OMENALDIAREN AMAIERA Hizlariak: Pedromari Goikoetxea, Fernando Olabarrieta, Lurdes Prudencio, Luis Ramon Alvarez eta Ritxar Zarate.	LEZAMA (frontoia)

ANTOLATZAILEEN BERBAK OMENALDIAREN AZKEN EKITALDIAN, BAZKALONDOAN. (I)

Gaur goizean, lehenengo orduan, «*Zorritzketan* Euskera Alkarteak» daukan lokaltxo edo bulego txikira joan gara, azken orduko barririk ete dagoan, zeozer egitea falta ete dan, detaileren bat..., omenaldiaren azken egun hau ondo antolatu gurean.

– Lehenengo, gutunontzia zabaldu dogu. Ez da ezer egon.

– Ondoren, telefonoan mezurik inork itxi dauan konprobatu dogu..., eta ezer be ez. «Tira, ordubera, ezer ez badago, gauzak ondo doaz», pentsatu dogu geure artean.

– Gero, ordenadorea biztu eta mezu elektronikorik heldu dan aditu dogu... Eta hara non, mezu barri bat dagoela ikusi dogun. Lehenengo momentuan, nondik datorren jakinda, petrifikatuta geratu gara, itzelezko otxikerea sentidu dogu barru-barruan: *mikelzarate@bestemundua.com*, edo. org, edo. info, ez dot ondo gogoratzen helbidearen buztan hori.

Mezuagaz batera fitxategi bi etorri dira erantsita:

– Bata, audio-fitxategia, edo soinua dakarren artxibo horreetariko.

– Bestea, testu-fitxategia.

Zabaldu dogu lehenengoa eta Mikelen barrea entzun dogu, ezagutu genduanok ondo gogoratzen dogun barre algara zaratatsua, berezkoa, zintzoa, baikortasunez betea, kutsakorra. Gure lagun batek idatzi eban moduan: «Mikel barreka, eta garritik gorakorik ez jakon geratuko mugidu barik».

Zabaldu dogu beste fitxategia, eta testuak hauxe dino:

«Ieeeeeup (aupada bategaz hasten da). Arrastion Lezamarrok, txorierritarrok eta hor batu zarien euskaltzale guztiok (dino Mikelek). Gaur, ez deusuet gutun literariorik egingo. Ez, ez, Baina uste dot hiru-lau berba zuoi esatea tokatu egiten jatala, sikeran be eskerrak emoteko.

Eskerrik asko nigaz akordatu zarielako, eskerrik asko bihotz-bihotzez. Harro eta pozik sentitzen naz zuen gogoan eta bihotzean nagoelako. Eskerrik asko.

Baina, piti bat arduratuta be banago. Ze, ni hemen oso ondo nago, bero-berotan, ez dot ezer falta: irakurtzen, idazten, errezetan, bertsotan, pelotan... Lantzean behin musaldiren bat be egiten dogu, Iskanderregaz, Andolinegaz eta beste euskaltzale maitagarri batzuekaz.

Esan dot. Ni hemen ondo nago, baina euskerea, hor, zuon artean ez dabil hain ondo:

– Alde batetik, Madrilan eta Parisen, eta Euskal Herrian bertan euskereak oraindino be arerio asko daukaz, eta diktaduraren sasoian emoten ziren antzeko erasoak sufridu behar ditu. Tristeia da, XXI. munduan, oraindino be hizkuntza txiki, baina hizkuntza zahar eta eder batek errespetu handiagoa ez merezidu izatea.

– Beste alde batetik, administrazio-arduradunen artean eta politikoen artean benetako euskaltzale asko egon arren, uste dot ahalegin handiagoa egin behar dozuela euskeraren alde eta euskal kulturaren alde BAT egiteko eta batera joateko, mizkeriak eta protagonismoak kanpoan itxita. Hor be, zuen mundu kapitalista horretan, ilusinoagaz, sormenagaz eta lan egiteagaz batera dirua be inportantea da kultura egiteko. Bai, baina eredia be bai.

– Eta beste gauza bat be esan behar deusuet nire ardura hau azaltzeko: ni mundutik joan nintzanetik, behar asko egin dozue, asko aurreratu dozue, egia da, batez be ezagutza mailan. Gero eta liburu gehiago argitaratzen dira euskeraz, gero eta jende gehiagok daki euskeraz berba egiten. Baina erabili? Egin? Eta egiten dana, zelan? Zelango mailagaz? Adibiderako, egizue bueltatxo bat Lezamako plazatik eta kaleetaik edozein egunetan. Idatzi nebazan alegi mingotsak gaur egunerako be baliio dabe, zoritxarrez: «Umeen zentzuna etxean entzuna» eta beste alegibatzuk...

– Ederto, bide batezko gogoeta batzuk egiteko eguna bada, baina ez triste egotekoa. Eta, mesedez, ez egizue hartu dinodazanak errudun sentidu azoteko akusasinozko berbak legez, ez, ez, esperantza eta ilusinoz beteta doazen berbak legez baino. Jakingo dozue bidea topatzen, seguru nago. Eta biderako lagungarriak be hor daukazue: diru-laguntzak, plangintzak eta abar... Hor daukazue Txorierriko euskera alkarteak, «Aikor!» aldizkaria, eskola eta ikastetxe euskaldunak... eta, batez be, pertsonak, euskaltzaleak... hor daukazue sare gogotsu eta adoretu hori Txorierriko euskaltzalez osotua, holango eta honen antzeko ekitaldi kulturaleri esker indartuko dozuena.

– Honenbestez, bertsolariak be entzun gura dodaz eta amaitu egin behar dot.»

Agur eta betirarte esateko, poematxo bat aukeratu dot, «Higidura berdez» nire liburuan hitzatzte gisa idatzi nebana. Gura badozue, ipini egizue hormetan, eta eroan egizue buruan eta bihotzean, baina, batez be, egin egizue hor esaten dana:

EUSKARA

Eraman ezazu haizetara,	edonora.
eraman ezazu eguzkitara,	Baina ez sartu,
eraman ezazu baserrira	mesedez,
eta hirira,	faborez,
ikastoletara,	inongo bitrinatan;
etxeetara,	ez lurperatu
irratira,	sekulan santan.
telebisia....,	

ANTOLATZAILEEN BERBAK OMENALDIAREN AZKEN EKITALDIAN, BAZKALONDOAN. (II)

Zorritzetan Lezamako Euskera Alkartearen partetik, eskerrik asko, bihotz-bihotzez Mikelegaz batera bazkaltzera etorri zarion guztioi.

Danok dakigun moduan, omenaldiaren helburu nagusia, Mikel idazlea, Mikel abadea, Mikel euskaltzalea, Mikel irakaslea, Mikel herritarra, Mikel gizona gogoratzea da. Eta, hemendik aurrera, Mikel eta berak esanekoak, bu-ruan eta bihotzean eroatea be bada omenaldiaren helburua.

Antolatzaileok, oraintxe bertan ez dakigu helburua lortu dogun ala ez. Hori zeuok esango dozue. Guk dakigun gauza bakarra haxe da: omenaldia prestatzen hasi ginanean, orain dala hiru urte edo gehiago, egin genduan lehenengo beharra Mikelen inguruko jendeagaz kontaktuan jartzea izan zan: haren familia, haren lagunak, haren irakaskide eta ikasleak, haren abade lagunak, instituzinoak, haren auzoko eta herritarrak, Txorierriko euskaltzaleak... omenaldia ahal danik eta zabalena egiteko asmoagaz.

Eta egia santua da esango doguna: dan-danak baietza emon euskuen. Danak esan euskuen: «Mikelegaitik, edozer, bai, pozik». Eta hori Mikelen meritu da eta ez antolatzaileena. Eskerrik asko, beraz, guztioi. «Eskerrak» berbea, gaur askotxo entzungo dan berbea izango da, baina ez dago beste erremedio-rik. Guk ez dogu omenaldian parte hartu dabon pertsonen izenik gaur emon-go, zerrenda oso luzea dalako, eta ganera, baten bat kanpoan ixteko arriskuan garalako.

Hor izan dira, Txorierriko euskera alkarreak, *Aikor!* eta beste komunika-bideak, kultura talde eta erakundeak, euskaltzainak, abadeak, haren lagun, lan-kide eta ikasleak, idazleak eta ikerlariak, instituzinoak, Lezamako Udala, Lezamako eskola eta Lezamako herritarrak, bertsolariak, musikariak, aktoreak, pelotariak, Gereako eta Lauroetako lagunak, eta abar, eta abar... Dozenaka eus-kaltzale. Guztioi, eskerrik asko bihotz-bihotzez antolatzaileon partetik.

Esandakoren adierazgarri eta adibide legez, eta honegaz amaituko dogu gaurko gurea, omenaldia prestatzen gabiltzala, euskaltzale handi batek bialdu euskun gutun labur-ederra irakurriko deusuegu. Gutunaren autorearen izena esan barik, hasikeran esan dogun moduan oraingoan be, balio dagiala parte hartu dozuen guztion pentsakerea eta sentikerea erakusteko.

Holantxe dino:

«Ezusteke handia eman didazue benetan! Zirrara sentitu dut! Benetan poz-ten naiz Mikeli prestatzen ari zaretan omenaldiaz; bestalde, zer gutxiago! Azala-goko zenbat eta zenbat gauza «omentzen» diren gure herri honetan eta munduan! Aitzitik, sakontasunaren sakontasunera jo izan duen eta jotzen ari den zenbat eta zenbat alde batera utzita!



EUSKALTZAINDIA

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



LEZAMAKO UDALA

Jean Haritschelhar Duhalde
euskaltzainburua

eta

Luis Ramón Álvarez Sagardui
Lezamako alkatea

atsegin handiz gonbidatzen zaituzte, 2004ko martxoaren 26an, Lezamako Udaletxeko Kultur Aretoan, arratsaldeko betan, Mikel Zarateren omenez egingo den ageriko bilkurara.

Ageriko bilkura, Mikel Zarateren omenez

1. Alkatearen ongietorria.
2. *Zorritzetan* Lezamako Euskera Alkarteko ordezkariaren hitzak.
3. Euskaltzainburuaren agurra.
4. Mintzaldiak:
 - ✓ Karmelo Etxenagusia, ohorezko euskaltzaina: "Mikel Zarate, eleiz idazle".
 - ✓ Jose Luis Lizundia, euskaltzain osoa: "Mikel Zarate, bizkaiera eta euskara batuaren arteko zubigintzaren estratega".
 - ✓ Andres Urrutia, euskaltzain osoa: "Mikel Zarateren irakasbidea."
5. Herriko abesbatza.
6. Amalera hitzak.

«Ez dakit, juxtu, zer-nolako omenaldia ari zareten prestatzen, baina egin dezakezen guztia gutxiegi izango dela pentsatzen dut.

Izan nuen, behin behintzat, Mikelekin buruz buruzko harremana izateko aukera, eta benetan hunkitu eta ukitu ninduen. Aurrean «gizona» ikusi nuen; behiala Diogenes aldartetsuak, egun argitan eta jendaurrean, eta eskuan zuzi argitsua zuela bilatzen ei zuen «gizona»; agian, edo/eta segur aski, handiagoa. Har itzazue lerro hauek Mikelekiko izan nuen eta dudan mireспенaren seinaleztat. Beraz, eskertzen dizuet, bihotz-bihotzez eskertu ere, omenaldian parte hartzeko zuen gonbita.

Bukatzeko, esker mila. Egin iezaiozue agerraldi handi hau jendeari, bereziki Mikelen herritarrei: badutela harro egoteko arrazoi sakon-sakona. Txirrindulari, pilotari, futbolari, harri jasotzaile, idazle, politiko eta pertsonaia... handi-handien gainetik jarriko nuke Mikel».

Betirarte, Mikel Zarate.